

Latxa hizkuntza-ereduekin probak



Ariketa hau HPSren GAITU hizkuntza-teknologiaren ekintza-planeko IKERGAITU proiektuaren baitan kokatzen da eta azken helburua euskararen biziraupen teknologikoa bermatzea eta euskara hizkuntza hegemonikoei duten presentzia-mailatik ahalik eta hurbilen kokatzea dela, baita euskararen burujabetza teknologikoari heltzea ere.

Testuinguru horretan, HiTZek Latxa hizkuntza-ereduen familia garatzen dihardu. **Latxa jendartearen zabalteko prest egon daitekeela uste dugu, baina hori egin aurretik proba batzuk egin nahi ditugu.**

Probak egiterakoan, kontuan hartu hurrengoak:

- Aplikazioaren hasierako bertsio honetan **ezin da dokumenturik igo**. Testuak bertan itsatsi beharko dira (sarreraren luzera maximoa ~2.800 hitzekoa da).
- Gainera, bertsio honek **ez dauka Internetarako sarbiderik**. Horrek esan nahi du ez duela balio web bilaketak egiteko edo web-helbide zehatz batean zer eduki dagoen jakiteko. **Latxa ez da bilatzaile bat edo bilatzaile baten ordezkaria.**

Aipatutako 2 funtzionalitate horiek ez dira berariaz hizkuntza-ereduenak, baizik eta horien gainean garatutako aplikazioenak. Probetarako zabaldu den interfazearen kasuan, ikerketa-fasean gauden heinean, funtzionalitate horiek ez dira garatu oraindik.

Horrez gain, kontuan hartu ereduaren sortzeko erabili ziren datuak 2024ko urtarrilera artekoak direla. Hau da, **ereduaren munduari buruzko ezagutza 2024ko urtarrilera artekoa** dela esan daiteke. Ondorioz, proba hauetan, data horretatik hara tagoko gertakariei buruz ez galdetzea gomendatzen dizugu. Jakin, badakigu, horrelako galderak eginda bi erantzun posible emango dituela Latxak:

- a) Erantzuteari uko egin diezaioke, informazio nahikoa ez duela argudiatuta.
- b) Erantzuna sortuko du, baina duen ezagutza-ebaketa horrek mugatuta.

Gauzak horrela, **Latxa bezalako hizkuntza-eredu baten indarguneak batez ere hizkuntzan oinarritutako atazak dira**. Hona hemen ataza horien adibide gutxi batzuk:

- Testuak eraldatzea: laburtzea, osatzea, berridaztea (erregistroa, tonua, hizkuntza-maila, eta abar), itzultzea, akatsak zuzentzea, ...
- Idazten laguntzea:
 - orri zuriari aurre egiten (sarrera idatzi, eskema bat iradoki, eta abar)
 - guk emandako ideien ordena eta horien arteko lotura koherentea iradokitzen
 - testu baten ahulguneak seinالاتu eta hobetzeko moduak iradokitzen
 - testu pasarte solteen arteko loturak sortzen
 - testu informal eta eskematikoak modu oso eta formalean berridazten
- Testuen analisisa, ulermena, informazio erauzketa:
 - hitz gakoak erauztea
 - pasarte edo ideia baten esanahia argitzen edo eztabaidatzea
 - testu baten ulermena ebaluatzeko galderak (irekiak, testak) iradokitzea
 - testu luzeetan informazio zehatza aurkitzea edo galderak erantzutea
 - testuak intereseko irizpideen arabera sailkatzea: gaiak, jarrerak, ...
- Ideia-jasak eta munduaren ezagutza orokorra:
 - gai jakin bati buruzko ideiak sortzea eta brainstorming saioak erraztea
 - ezagutza orokorreko galderak erantzutea
 - arazo konplexuetarako ikuspegi desberdinak proposatzea
 - analogiak eta adibideak eskaintzea
 - ikerketa-norabideak iradokitzea
 - gai berrien inguruko ausnarketak bideratzea

Lagundu Latxa zu laguntzen!

- Zure **eskaera zenbat eta zehatzagoa** izan orduan eta erantzun hobea lortuko duzu.
- Latxak ez badu hasieratik egin beharrekoa ondo ulertu edo erantzuna ez bada guztiz aproposa izan, **elkarrizketan jarraitu dezakezu** harekin: esaiozu zergatik bere erantzunak ez zaituen asebetetzen eta zer/nola aldatu behar duen hobetzeko.